

KANPO MERKATARITZAREN ESTATISTIKAK (KAMEE) 2003KO 4. HIRUHILEKOA

Euskal AEko esportazioak % 0,4 hazi ziren, eta inportazioak % 0,2, 2003ko laugarren hiruhilekoan

Arabako esportazioak nabarmen hazi dira, % 10,1, urteko azken hiru hiletan.

Euskal AEko esportazioek % 0,4ko hazkunde nominala izan dute 2003ko laugarren hiruhilekoan, EUSTATEk emandako datuen arabera. Hartara, 3.157,9 milioi eurora iritsi dira. Hiruhileko horretan, Arabako esportazioek baino ez dute urte arteko bilakaera positiboa (% 10,1) izan; aitzitik, jaitsi egin dira Gipuzkoakoak (% -4,7) eta Bizkaikoak (% -1,2).

Inportazioek ere bilakaera positiboa izan dute, % 0,2koa, 2002ko hiruhilekoaren gainean. Haien bilakaeran orobat alde handiak izan dira lurralde batetik bestera: Bizkaian % 9,1, Gipuzkoan % -0,2 eta Araban % -19,1.

2003. urteko azken hiruhileko horretako merkataritza-saldoa (hots, esportazioak ken inportazioak) 326 milioi eurorena da. Esportazioek inportazioen gainean duten estaldura-tasa (% 111,5) urtebete lehenagokoa baino hiru hamarren hobea da.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera. 2002-2003ko laugarren hiruhilekoa

Unitatea: mila euro

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Urria-Abendua		Δ %	Urria-Abendua		Δ %
	2002	2003		2002	2003	
EUSKAL AE						
GUZTIRA	3.144.610,7	3.157.961,2	0,4	2.827.401,1	2.831.900,3	0,2
PRODUKTU MINERAL ETA ENERGETIKOAK	130.086,4	153.076,8	17,7	550.330,7	620.811,0	12,8
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	3.014.524,3	3.004.884,3	-0,3	2.277.070,5	2.211.089,3	-2,9
ARABA						
GUZTIRA	796.038,6	876.585,5	10,1	668.752,6	541.241,5	-19,1
PRODUKTU MINERAL ETA ENERGETIKOAK	1.019,4	1.582,8	55,3	5.937,2	5.192,6	-12,5
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	795.019,2	875.002,7	10,1	662.815,4	536.048,9	-19,1
BIZKAIA						
GUZTIRA	1.228.178,6	1.213.345,4	-1,2	1.455.747,3	1.588.866,3	9,1
PRODUKTU MINERAL ETA ENERGETIKOAK	123.149,6	146.306,1	18,8	532.512,1	603.844,8	13,4
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.105.029,0	1.067.039,3	-3,4	923.235,2	985.021,5	6,7
GIPUZKOA						
GUZTIRA	1.120.393,5	1.068.030,3	-4,7	702.901,3	701.792,5	-0,2
PRODUKTU MINERAL ETA ENERGETIKOAK	5.917,4	5.187,9	-12,3	11.881,4	11.773,5	-0,9
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.114.476,1	1.062.842,4	-4,6	691.019,9	690.019,0	-0,1

Iturria: EUSTAT

2003. URTEAREN BALANTZEA

2003. urtearen balantzea eginda, esportazioak % 1,8 hazi ziren, eta inportazioak % 3,8.

Euskal AEko esportazioak 11.752,8 milioi euro izan ziren 2003. urtean, aurreko urtean baino % 1,8 gehiago. Esportazioek % 5,9ko hazkunde nominala metatu zuten 2003ko lehen sei hilekoan. Urtearen bigarren erdian, aldiz, hazkunde-tasa murrizagoak izan zituzten, hirugarren hiruhilekoan % 4,8 jaitsita eta urteko azken hiruhilekoan % 0,4 goratuta.

Urteko inportazioak 10.452,6 milioi euro izan dira. Horrenbestean, urteko hazkunde-tasa % 3,8 da.

Beste alde batetik, esportazio ez-energetikoak % 0,7 gehitu dira urte osoan; eta izaera bereko inportazioak, % 3,3.

Merkataritza-saldoa 2002ko 1.466,4 milioi euroetatik 2003ko 1.300,2 milioi euroetara jaitsi da. Produktu energetikoen transakzioak alde bat utziz gero, merkataritza-saldo ez-energetikoa ere jaitsi egin da, aurreko urteko 3.084,4 milioi euroetatik 2003ko 2.898,4 milioi euroetara.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera, 2002-2003.

Unitatea: mila euro

KONTZEPTUA	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	urtarrila-abendua	urtarrila-abendua	Δ %	urtarrila-abendua	urtarrila-abendua	Δ %
	2002	2003		2002	2003	
GUZTIRA	11.540.188,2	11.752.818,3	1,8	10.073.763,2	10.452.641,3	3,8
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKO	444.069,9	577.697,8	30,1	2.062.050,5	2.175.935,6	5,5
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	11.096.118,4	11.175.120,5	0,7	8.011.712,7	8.276.705,6	3,3
- Nekazaritza-produktuak	454.786,8	477.548,1	5,0	904.560,8	914.025,8	1,0
- Kimika-produktuak	335.026,7	328.757,3	-1,9	364.511,3	403.929,2	10,8
- Plastikoak eta kautxuak	770.204,3	765.557,8	-0,6	503.911,3	544.362,6	8,0
- Papera	408.369,5	406.920,2	-0,4	298.436,9	279.417,9	-6,4
- Metal arruntak eta manufakturak	2.689.992,7	2.759.607,1	2,6	2.159.427,1	2.399.445,6	11,1
- Ekipo-ondasunak	5.541.035,4	5.554.223,2	0,2	2.895.755,9	2.792.758,4	-3,6
- Bestelako manufakturak	771.491,8	764.401,7	-0,9	849.327,5	898.429,8	5,8
- Sailkatu gabeak	125.211,1	118.105,1	-5,7	35.781,8	44.336,4	23,9
ARABA	3.134.659,1	3.120.186,3	-0,5	2.067.407,6	1.956.037,0	-5,4
BIZKAIA	4.364.714,4	4.486.580,7	2,8	5.456.262,5	5.822.570,9	6,7
GIPUZKOA	4.040.814,7	4.146.051,4	2,6	2.550.093,1	2.674.033,3	4,9

Iturria: EUSTAT

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren ondorio gisa, guztizko esportazioek guztizko inportazioen gainean duten estaldurak ehunekotan bi puntu eta bi hamarren galdu ditu, aurreko urtearen aldean: 2002an % 114,6 zen, eta 2003an % 112,4, inportazioek hazkunde erlatibo handiagoa izan zutelako. Esportazio ez-energetikoen estaldura, inportazio ez-energetikoen gainean, aurreko urteko % 138,5etik 2003ko % 135,0ra beheratu da, ehunekotan hiru puntu eta erdi galduta.

Partida nagusien jatorria eta jomuga 2003an

Europar Batasuneko gainerako aldeetara doazen esportazioek % 3,5eko urteko tasa izan dute. Aipagarriak dira, izan duten urteko hazkundeagatik, Irlandara (% +85,8) eta Danimarkara (% +24,7) egindakoak. Orobat handitu egin ziren bezero nagusiei egindako salmentak: Frantzia (% 2,7), Alemania (% 2,4), Italia (% 7,8), Begika (% 3,4) eta Herbehereak (% 8,8). Aitzitik, jaitsi egin dira Erresuma Batura (% -1,8) eta Portugalera (% -4,1) doazenak, besteak beste.

Europar Batasunetik datozen inportazioek % 1,4ko atzerakuntza izan dute, beheratu egin baitira Frantziakoak (% -0,7) eta Alemaniakoak (% -3,5), nahiz eta Herbeheretatik (% 6,0), Danimarkatik (% 16,3), Greziatik (% 39,9) eta Portugaldik (% 3,6) datozenak goratu diren.

Ekipo-ondasunak dira esportazio guztien % 47,3 hartzen duen muga-zergetako taldea. Bada, talde horrek hazkunde txiki bat izan du, % 0,2, 2003. urtean. Muga-zergetako bigarren talde garrantzitsuena ***metalak eta manufakturak*** dira (esportazio guztien % 23,5) eta talde horrek % 2,6 gehitu ditu atzerrira egindako salmentak.


Ekipo-ondasunen inportazioak % 3,6 jaitsi dira 2003. urtean; kanpoan erositako ***metalak eta manufakturak***, ordea, % 11,1 gehiago dira.

2003ko bilakaera, lurraldeka

2003. urtean, Bizkaiko eta Gipuzkoako esportazioek oso antzeko bilakaera izan dute, lehenak % 2,8 eta bigarrenak % 2,6 hazi baitira. Arabako esportazioak, berriz, zertxobait apaldu dira, % 0,5, aurreko urtearen aldean. Gipuzkoako esportazioen bilakaeraren euskarri ***ekipo-ondasunak*** (% 3,2) eta ***metalak eta manufakturak*** (% 6,7) taldeen igoerak izan dira. Bizkaian, beheratu egin dira ***ekipo-ondasunak*** (% -1,0) eta pixka bat goratu ***metalak eta manufakturak*** (% 1,0), eta, horrenbestez, hango urteko emaitzak oinarritzat ditu ***produktu kimikoak*** (% 16,3) eta ***produktu mineralak eta energetikoak*** (% 31,6), besteak beste.

Arabako esportazioetan nabari da bilakaera negatiboa izan dutela ***ekipo-ondasunek*** (% -2,0), bereziki ***garraio-materialak*** (% -5,0), eta horrek zuzenean eragiten dio esportazioen guztizkoaren zeinuari, nahiz eta ***metalak eta manufakturak*** taldeak % 0,3ko gehikuntzatxoa izan.

EUSKAL AE-KO KANPO-MERKATARITZA (datu originalak eta joera)



Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxe: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Patxi Garrido

Tel.: +34-945 017 513. Faxe: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es